



zu ha mu

aur kez pena

*Bernat Etxepare baxu nafarrak, euskaraz idatzitako lehenengo liburua-
ren egileak, 1545 ean erabili zuen hitz hau "zuhaitza" izendatzeko.*

*Gaur egun "zuhamu" antzinako hitza da, ia desagertua, planetako
jatorrizko baso gehienen antzera. Zuhamu ingurumenaren eta antro-
pozeno kulturaren oinarri diren izaki hauei diegun
maitasunetik eta plazeretik sortzen da. Zibilizazio gehienek gurtuak,
zuhaitzak dena dira biosferan.*

*Zuhamuren sorkuntza uraren eta zuhaitzen arteko funtsezko
harremanari buruzko esplorazio poetiko sakona du iturburu.
Harreman hau, planetaren bizitzarako funtsezkoa izan arren, inoiz
ez delako behar bezala ikusarazi. Bere azalaren azpian, zuhaitz
batek ehunka litro ur mugitzen ditu egunean, batzuetan milaka,
inguruko ekosistema eraldatzen duen etengabeko jarioan.*





Gure sorkuntza egonaldietan, lan trinkoa egiten dugu zuhaitza, ura, airea eta mugimendu jariakorra bezalako elementuak ikertu eta irudikatzen. Naturaren orekarako funtsezkoak diren elementu hauek gure lanaren egitura osatzen dute.

Ikerketaren ardatza, naturak berezko dituen mugimendu horiek esperientzia artistiko bat bilakatzea da. Eta bide batez, nola sorkuntza honen bitartez gizakiok naturarekiko dugun lotura eta errespetua berreskuratu eta sustatu ditzazkegun.

Gure helburua, beraz, bizi dinamika hori atxikitzen duen zirko-dantza lan bat sortzea da, baso-inguruneko xehetasun bakoitza nabarmentzen duen, zuzeneko musikaz jantzita.

Koreografia naturaren mugimendu eta erritmoan inspiratzen da. Musika, zuhaitz baten barruan bidaiatzen duen uraren soinua eta sentsazioak irudikatzen saiatzen da.

Hori dena basa giro batean gauzatzen da. Ikusleari artea gure planetako bizitzaren esentzia berarekin lotzen duen esperientzia murgitzaile bat eskeini nahi zaio.

Sormen prozesu honek adierazpen artistiko bat eskaini nahi du, eta aldi berean gure ekosisteman zuhaitzek duten garrantziaz kontzientzia handiagoa sortzea.

Zuhamu elementu hauei egindako omenaldia da, hauen edertasuna eta garrantzia azaleratuko dituen zirkuaren, dantzaren eta zuzeneko musikaren fusio berritzailea.


proiektua

Zuhamuren esentzia munduari aurkezteko nahia faktore sortzaile, profesional eta bizi faktoreen konbergentzia bakarretik sortzen da.

Juanjo Altuna basoen jasangarritasunean maisua da, eta harekin hasi nituen, 2019an, Araitz haraneko (Nafarroa) pagadi batean zuhaitzen entzumen-miaketak eta barne-irakurketak egiten. Naturarekin bat egin zuten une horiek hazi sortzaile bat erein zuten, eta horrek piztu zuen zuhaitzak sakonago ulertzeko nahia.

Beste topaketa garrantzitsu bat Rouge Elea konpainiarekin gauzatzen da, zuhaitzekin lanean sorkuntzetan duten esperientzia gidari bihurtzen delarik. Beraiekin hainbat urtez lankidetzan aritu ondoren, zuhaitzekiko benetako gozamena eta maitasuna sortzen da, nire perspektiba eraldatuz eta zuhaitzak elementu natural gisa ez ezik, inspirazio-iturri agortezin, gai eta baliabide artistiko gisa aztertzeke borondatea sendotuz.

abenturaren hasiera





Azkenik, Arbola Jaialdiarekin (arte, zientzia eta natura uztartzen dituen laborategia) eta Isabel Ferreira zuzendari artistikoarekin bat egiteak aukera ematen du zuhaitz unibertsoaren inguruko ideia eta irrika guzti hauek ekintza bihurtzen hasteko.

Proiektu hau aurrera eramateko motibazio sendoak, zientziaren eta zuhaitzen poesiaren arteko amalgamarekiko nire lilura partekatzen duten pertsonen konplizitatearekin, bidaia sortzaile honen urrats bakoitza bultzatzen du.

Horregatik batu zen lan taldera Toni Gutiérrez. Toni zirkuko artistaz gain ingurumen zientzietan lizentziaduna da eta landare-munduaren zale amorratua ere. Berarekin sormenaren eta pentsamenduaren munduan hainbat topaketa profesional eduki ondoren elkarrekin lan egitea erabakitzen dugu. Toniren egungo bilaketa artistiko pertsonala zirkuko soka, eta zuhaitzen mugimendutan oinarritzen da.

Zuhamu lankidetzan inspiratzaile horien guztien emaitza izanen da: Artearen bidez natura sustatzea eta ospatzea helburu duen bidaia.

paradigma berri baten beharra


Urte hauetan, komunikabideek etengabe bonbardeatu gaituzte planetaren iraunkortasuna zaintzeko premia larriarekin gure bizimoduak aldatu behar ditugula esanez. Hiritarroi exigitzen digute, askotan beldurraren bidez, munduaren egungo ingurumen-krisiaren erantzukizuna hartzea.

Hala ere, politika neoliberalak ez diote lekua irekitzen Lurraren bizi-beharrei erantzuten dien sistema bati. Interesen etengabeko kontraesan batean bizi gara, mendeetan arrastaka eraman ditugun ohitura antropozentrikoetan preso. Testuinguru horretan, Zuhamuren bitartez, ezinbesteko bizi-paradigma berri baten eraikuntzan parte hartu nahi dugu.

Gure asmoa beldurra edertasuna bezalako tresnekin ordezkatzea da. Edertasuna erabili nahi dugu pertsonak ikuspegi zabalago batetara gerturatzeko. Zuhaitzen, naturaren eta gizakiok mundu honetan dugun edo izateari uzten diogun paperari buruzko hausnarketak eragin nahi ditugu.

Zuhamuren bitartez naturarekiko lotura sakonago bat inspiratzen eta sustatzen duen esperientzia eskeini nahi dugu, gure planetarekiko kontzientzia eta errespetu berrituak piztuko dituen.

hela buruak





artearen eta zientziaren arteko sinergia

Paradigma-aldaketa bultzatu nahian, artearen eta zientziaren esparruen arteko lankidetzak liluragarria iruditzen zaigu. Interesgarria da gogoratzea ez zela izan 1735era arte, Alexander Baumgartenek ezagutza logikoaren edo zientifikoaren eta ezagutza sentsorialaren, arteari dagokion ezagutzaren, arteko bereizketa egin zuela. Estetikaren gurasoetako bat izandako Filosofo aleman honentzat, ezagutza logikoa arau unibertsalki baliozkoetan oinarritzen zen, zentzumeneren ezagutza berriz pertzepzio sentikorretan. Hauek argiak izan arren, ez zituzten besteen postulatu logikoen ebidentziarik. Ezaugarri hauen itxurazko distantzia izan arren, artearen eta zientziaren eremuak oso harreman estuak izan dituzte historian zehar.

Adibide gisa Leonardo Da Vinci, Santiago Ramón y Cajal edo Samuel Morse bezalako pertsonaiak ditugu. Hala ere, momentu batean, zientzia eta artea elkarrengandik aldentu ziren, eta gaur egun, zientziak arteak beti partekatzen ez duen ospea dauka.

Proposamen eszeniko honen bitartez, artearen eta zientziaren arteko lankidetzaz suspertzen lagundu nahi dugu. Sormena aurrerapen zientifiko berriak bultzatzen dituen faktore garrantzitsu bat da. Sormenak ere jakintzaren arlo desberdinen arteko elkarrizketak zabaltzen ditu, eta, aldi berean, sorkuntza eta esperimentazio espazioak irekitzen ditu artearen eta zientziaren arteko sinergiari buruzko hausnarketak gauzatzeko.

Helburu horiek burutzeko, gure lan taldean ingurumen zientzien bi aditu ditugu: Juanjo Altuna Otamendi, baso teknikaria, eta Toni Gutierrez, zirkuko sortzailea eta ingurumen zientzietan lizentziatua.

Ikuspegi horretatik, elkarren arteko elkarrizketa luzei esker eta diziplina bakoitzetik sortzen diren ikuspuntu ezberdinen partekatzearen ondorioz hizkuntza amankomun bat garatzen ari gara.

Gainera, hainbat materialekin dokumentatu gara eta elkarlanean informazio horien ikuspegi desberdinak partekatu eta kontrastatzen ditugu.

Hona hemen gure dokumentaziorako erabiltzen ditugun materialetako batzuk:

La vida secreta de los árboles / Peter Wohlleben
Los árboles te enseñaran a ver el bosque / Joaquín Araujo
Pensar como un árbol / Jacques Tassin
Ser bosques / Jean-Baptiste Vidalou







ukiezina ikusarazi

Irudiari neurrigabeko garrantzia ematen dion gizarte batean bizi gara eta, ondorioz, ikusmenaren zentzuari ere. Esan genezake ikusmenaren aginte tiranikoaren menpe bizi garela eta horrek gainerako zentzumenen balioa gutxiestera eramaten gaituela, baita gure sentiberatasuna eta emozionaltasuna ere.

Baso batean, basoa osatzen duten elementu guztiak partaide diren multzoaren orekaren zerbitzura daude. Osagai bakoitzak, animali, ura, landare, zuhaitz, haize, bakterio eta onddo, modu paregabean kooperatzen du. Zuhamuren bitartez askotan ikusten ez ditugun ekosistema hauetan gertatzen diren bizi prozesuen inguruan kontzientzia hartzea erraztu nahi dugu. Zuhaitzek, adibidez, ekosistemaren orekan funtsezkoa den papera jokatzen dute, ura erregulatzen eta lurralde batek jasotzen duen euri kantitatean eraginez. Zuhaitzak mozteak, balantze hidriko honetan, inpaktu suntsitzailea izan dezake.

Oro har, Lurra planetako elementu eta izaki bizidunen arteko dauden interdependentzia-harremanak ez ditugu kontutan hartzen. Irudiarekin dugun obsesioa dela eta, Natura begiratzen dugunean, postal bat bailitzan behatzen dugu, edo kirol kantxa bat bezala, edo eta kasurik okerrean, baliabide hutsa bezala, haren konplexutasuna eta garrantzia aintzat hartu gabe.

Bestalde, Zuhamun ura sentsibilitatearen eta emozioen ikurra da. Hauek ere ikusten ez den mundu konplexu bat osatzen dute, eta ikustezina denez ez dugu merezi duen bezala baloratzen. Gizakiak % 75 inguru ura gara, gure planetaren antzera, urez inguraturik eta gehien bat urez osaturik gaude. Ura biziraupenerako nahitaezko behar bat dela badakigu, gure sentsibilitateari dagokionez, nere ustez ez diogu behar duen lekua ematen.

Nahiz eta azken urteetan honen inguruan hainbat kontzeptu garatu diren, hala nola adimen emozionala, oraindik ez dugu erabat ulertzen gure osasun fisiko eta mentalarentzako ezinbestekoa den mundu ikusezin honen garrantzia.

Zuhamun, naturan ikusezinak diren prozesu horiek ikusarazteaz gain, gure sentsibilitatearen eta emozionaltasun

ZU HA MU



A photograph showing a person in a blue shirt and shorts climbing a large, textured tree trunk. The person is positioned on the left side of the frame, leaning against the tree. The background is filled with lush green foliage and sunlight filtering through the leaves. The image is partially obscured by a white graphic element on the right side of the page.

publikoa naturara hurbiltzea

Espazio publikoaren kontzeptuaren zabaltasunak hiri bat edota herri bat osatzen duten espazioen aniztasuna azpimarratzera gonbidatzen gaitu. Zuhamun balioa eman nahi diegu beti zuhaitzak aurkitzen ditugun hiri- edo landa-espazio naturalei. Zuhaitz hauek, batzuk izugarriak, besteak aldiz apalagoak, denak ederrak, paisaiaren funtsezko elementuak eta era berean naturararekiko dugun lotura gogorazten digute.

Datu zientifiko eta esperientzial desberdinei esker, badakigu ingurune naturalak onespenak dituela bai gure bizi-kalitatean eta bai gure osasunean. Publikoa gurekin partekatzen gonbidatu nahiko genuke, eszenografia ohiantso baten garatzen den ikuskizunaz gozatzen. Kasu batzutan besteetan baina basatiagoa, tokian tokiko ezaugarrien arabera.

Adar eta hostoen artetik barneratzen den argia, momentuko argia, izan dadila piezaren une bakoitzeko argiztapena osatzen duena. Inguratzen gaituen soinua biolontxeloaren musikarekin bat egitea, soinu-banda bakarra osatuz. Jasotzen gaituen leku bakoitzaren ezaugarri desberdinekin ,haizearekin, usainekin, tenperaturarekin, hezetasunarekin ... osotasun bat osatzea gustatuko litzaiguke. Halaber, kuskizuna zentzumenen bidai bat izatea.



disziplina artistikoak eta bakoitzaren papera

Zuhaitza

Ardura handiz aukeratzen da eta bere fisionomian zehar gertatzen den eszenaratzearen protagonistakide bihurtzen da.

Teknikaria

Rigginga egiteaz gain, talde artistikoan parte hartzera gonbidatua dago, teknikari aktore gisa. Gaur egun testu lan bat daramagu elkarrekin.

Musikaria

Musikariak biolontxeloarekin zuzeneko musikak sortu eta interpretatzen ditu. Sormen-prozesua irekita dago beste soinua tresnen ekarpenari.

Akrobatak

Multi sokak ikertuko ditugu aireko elementu gisa, zuhaitzetan gora eta behera ibiltzen den urarekin duen parekotasunagatik. Dantza bertikaleko eta arnesarekin egindako lanaren pintzeladak ikusi ahalko ditugu. Airean zein lurrian dantzan eta mugimenduan ibiliko gara. Bertikalak eta akrobaziak oso gustuko ditugun diziplinak dira eta, ziurrenik, sortutako koreografiaren parte ere izango dira.

ekin zak

**Sormen-prozesua garatzeko eta gizarte-ehuna sortzeko,
hiru jarduera desberdin proposatu nahi ditugu,
hiru ardatz eta publiko desberdinei zuzenduta:**



1 · Sorkuntza prozesuko partekatzea: Aldez aurretik adostutako momentu bat litzateke, nun eta sormen prozesuetan interesatuak dauden pertsona anitzak gonbidatzea gustatuko litzaiguke. Haiekin elkar hartu eta eman bat gauzateko giroa sortzeko, Zuhamuren sorkuntzaren nundik norakoak azaldu nahi genizkieke, haiei gure buru hauste edota ikerketen partaide sentitzeko asmoarekin. Behin giroa sortuta elkarlaneko dinamika bat sortzea gustatuko litzaiguke, beti ere gure eskutik hartuta eta gidatuta. Elkartaratzea bukatzeko egonaldian zehar landutako zatitxoak erakutsiko genizkieke, haien burutazioak, zalantzak eta pentsamenduak gurekin konpartitzera gonbidatuz.

2 · Arte eta zientziaren arteko harremanen buruzko mahai ingurua: Natura maitale (biologoak, ikasleak, pertsonak, artistak...) talde, kolektibo, lagun edota zentrotako publiko anitzak gonbidatzea gustatuko litzaiguke. Gurekin sormen, arte eta zientzia-naturaren inguruan hausnarketa egiteko. Hasiera guk emango genioke nola naturak-zientziak lagundu digun sorkuntza hau bideratzen, eta orokorrean nola landu ditugun zientziaren ekarpenen barneratzea lehenengo eta kanporatzea ondoren. Aldi berean, gustatuko litzaiguke zientzia-natura maitaleen mundutik nola bizi den artearekiko harremana ezagutu eta elkarrekin hausnartzea.

3 · Zirko Tailerra: Akrobaziak, esku oreka, aireko akrobaziak... Urteetan zehar zirko munduan, formakuntzan, sorkuntzan eta hausnarketan ibili ondoren zirkuak jendartea hurbiltzen duen artea dela ohartu naiz. Tresna paregabea da elkartasuna, interdependentzia, aniztasuna eta elkarlana lantzeko. Publikoari begira, gustatuko litzaiguke zuekin zehaztea.

egun tegia

Sorkuntza-prozesua bi etapatan irudikatzen dugu: 2024ko martxotik 2024ko ekainera: Lehen etapa honetan, Maitane Azpirozek elementu eta gida fisiko eta artistikoekin bilaketa bat hasten du: esekidura, etengabeko mugimendua, grabitatearen aurkakoa, objektuekiko eta elementuekiko harreman sentikorra. Ikuskizunaren osagaien bilaketa eta hauen lanaren hastapena.

2024ko uztailetik 2026eko maiatzera: Bigarren etapan, materiala partekatu nahi da, beste artista berriak gonbidatuz: Toni Gutierrez eta Rolando San Martín batik bat.



etapa 1^{go}

2024 **Martxoa:**

Egonaldi bilaketa eta sorkuntzarako laguntza.

- Dokumentazio-lana
- aste1 : Suspentsioa lantzen hasi, etengabeko mugimendua, jarioasuna, grabitatearen aurkako lana.

2024 **Apirila:**

- Lehen frogak basoetan edo zuhaitz-lekuetan, Juanjo Altunaren laguntzarekin
- Egonaldi bilaketa eta sorkuntzarako laguntza.
- Dokumentazio-lana

2-5 (Legamia beka) Lekuonan egonaldia Erreterian:

- Martxoan hasitako lan fisikoaren jarraipena.

- Testuaren lanketa Juanjo Altunarekin (baso-teknikaria eta balio anitzekoa) 22-28 El Punto Gunean egonaldia.

- Martxoan hasitako lan fisikoaren jarraipena.

- Musikariarekin lehen topaketak, musika-diseinuaren hastapenak eta soinu-atmosferak.

- Basoetan edo zuhaitz-lekuetan frogetan jarraitzea, Juanjo Altunaren laguntzarekin

- Lan prozesuaren erakustaldia eta mentoretza artistikoa LABEako (Laboratorioa de Arte, ciencia y naturaleza) kideen eskutik

2024 **Maiatza:**

H2o lanaren aurkezpenak Arbola jaialdian

- Egonaldi bilatzea eta sortzen laguntzea.

egun tegia

etapa

garren

2024 **Uztaila**

15tik 19era (Legamia beka) Lekuonan egonaldia Errenterian:
Toni Gutierrezekin lehengo elkartaratzea, aurkitutako unibertsoaren aurkezpena eta proiektuaren inguruko ideien partekatzea. Elkarlanean hasi ikerketa, hausnarketa, mugimendua, akrobaziak eta idazketa koreografikoa.

2024 **Iraila:**

23tik 27ra El Punto Gunean Egonaldia:

- Tonirekin hasitako lanaren jarraipena
- Rolando San Martin kanpo begiradaren gehitzea taldean
- Musikariarekin, Ivanekin, musikaren inguruko hausnarketak eta frogak.
- Testuaren lanketa Juanjo Altunarekin

2024 **Azaroa**

11-15 (Legamia beka) Lekuonan egonaldia Errenterian:

- Idazketa koreografikoa eta mugimenduaren eta dramaturgiaren inguruko ikerketak. Tonirekin eta zihurrena Rolandorekin ere.

25-30 Garaion sorgingunean egonaldia

- Idazketa koreografikoa eta mugimenduaren eta dramaturgiaren inguruko ikerketak. Tonirekin eta Rolandorekin. Musikariarekin, Ivanekin, musikaren inguruko hausnarketak eta frogak.

- Testuaren lanketa Juanjo Altunarekin

2025eko Urtarriletik

2026 ko Maiatzera 13 asteko egonaldia denboran banatuta eta

2026 ko Maiatzan ikuskizunaren estreinaldia



ZU ha mu

Ekoizpen Aurrekontua

Gastuak

Soldatak

<i>Kampo begirada</i>	6.000 €	
<i>Antzezleak</i>	10.200 €	
<i>Teknikari taldea</i>	2.500 €	
<i>Ekoizpena</i>	6.000 €	
	24.700 €	24.700 €

Eszenografia eta jantziak

<i>Eszenarako materialak</i>	1.200 €	
<i>Jantziak</i>	800 €	
	2.000 €	+21%IVA 2.420 €

Ostatua / Bidaiak / Dietak

<i>Ostatua</i>	800 €	
<i>Bidaiak</i>	600 €	
<i>Dietak</i>	1.200 €	
	2.600 €	2.600 €

Gastu Orokorrak

<i>Asesoria eta asegurantzak</i>	2.000 €	
<i>Komunikazioa</i>	2.500 €	
	4.500 €	4.500 €

GUZTIRA

34.220 €



taldea

Maitane Azpiroz La Trapecionista konpainiako zuzendari artistikoa da eta Zuhamu proiektuaren kontzeptua eta ekoizpena aurrera eramatean du. Bera da ikerketa eta sorkuntzako lantaldea osatzen duten pertsonak aukeratzen dituena. Hautaketa-prozesu hau inplikaturako sektoreetako (sortzailea, zientifikoa, teknikoa) profesionalekin gauzaturako hainbat topaketen emaitza izan da.

Maitane Azpiroz

dantzaria, trapezista eta sortzailea:

Iván Casado

musikari-biolontxelista

Rolando San Martín

kanpo begirada

Toni Gutiérrez

akrobata eta ingurumen zientzialaria

Juanjo Altuna Otamendi

basogintzako teknikaria eta riggerra



maitane azpuz

Dantzaria, trapezista eta sortzailea

Txikitatik hasten du dantza eta 2001ean, 19 urterekin, zirkua ezagutu eta berarekin maitemintzen da. Une horretatik aurrera, mugimendua eta sormena bere bizi interesaren eta interes profesionalaren erdigune bihurtzen dira. Zirku eskoletan trebatzen da (Oreka, Iruña, Carampa Madrid, Espace Catastrophe Brusela...) eta modu autodidaktikoan ere. Aldi berean, dantza hainbat irakasle eta koreograforekin garatu zen. Toulouseko ESACTO Lido zirku eskola profesionalan sartu zen 25 urterekin.

Gauzak sortzeko eta esateko premia biziarekin ateratzen da, eta horrekin dantza, zirkua eta bideoa uztartzen dituzten bi bakarko sortzen ditu. Merkatu artistikoaren funtzionamenduaren ezjakintasunak besteendako lan egiteko gogoak ematen dizkio eta Euskal Herriko, Kataluñako naiz Frantziako hainbat konpainia eta proiektuetan lan egiten du dantzari, kanpo begirada, kolaboratzaile eta aireko akrobata bezala. 2010-2012n Bitartekaritza Kulturala (dantza zirku proiektu garapena) ikasten du (Le Mirail II Unibertsitatean- Toulouse-FR). 2020an La Trapecionista Kia sortzea erabaki zuen, Artxipielago proiektuari bizia emateko. 2022-23n zirkuko dramaturgia ikasketak burutzen ditu (CNAC- FR).

Gaur egun, aholkulari- zuzendari artistiko gisa egiten du lan, dantzari eta airetako akrobata bezala, aireko teknikan trebatzen ditu gazteak, eta ez hain gazteak, eta beste konpainia, talde, erakunde eta/edo pertsona batzuekin lankidetzan sortzen ditu arte bizietako proiektuak.



ivan casado

Musikari-biolontxelista

Iván Casado gasteiztarrak barrokotik musika garaikidera biltzen ditu obrak bere erreperorioan. Musikenen eta Berlineko Arte Unibertsitatean ikasi du gaur egungo ikasle eta musikari hoberenekin, bakarlari eta ganberako musika arloetan. Cello barrokoarekin maiz egiten du lan Propitia Sydera eta Passamezzo Antico taldeekin. Bestalde, musika garaikidean Ensemble Kuraia, Xare Laborategia eta Stratos Project-ekin, besteak beste. Orkestra sinfonikoetan ere egiten du lan kolaboratzaile moduan, BOS, OSN, OSCyL eta Bilbao Sinfoniettarekin.

Prestigio handia duten areto eta festibaletan jo izan du, adibidez: Música-Musika, Bernaola Festibala, Sevillako Joaquín Turina, Musikaste, Musikagileak, Arriaga Antzokia, fundación BBVA, Iruñako Gayarre Antzokia, Leongo Fundación Eutherpe, Kuraia festibala, Palau de la Música Valenciana, Córdoba musika garaikide festibala, Amsterdameko Muziekgebouw, Berlineko Hans Eislerreko Komponistenforum & Aufführungspreis, Estrasburgoko Sound Around, Monseko Arsonic... Zenbait grabaketa proiektuetan parte hartu du, adibidez: Tasio Miranda eta Alejandro Almarcho "Poemas y canciones", Félix Ibarrondoko "Barne Hegoak", Baigorriko "Bestofaldia" eta "Prohibido Recordar" dokumentaleko musika Xare Laborategiarekin, besteak beste.



rolando san martin

Kanpo begirada

Ibilbide luzeko diziplina anitzeko artista, gaur egun zuzendaritza eta dramaturgian diharduen dantzaria eta aktorea. Arte eta pentsamenduaren diziplinen diferentzien marruskadurak eratzen duten hizkuntza sortzen duten prozesuetan lan egiten du. Zuzendaritza lanak egin ditu Madrilgo Circo Price antzokian, Frantzian, Amienseko Cirque Jules Vernentzat, La Grainerie Fabrique des Arts du Cirque de Toulousen edo Gasteizko Principal Antzokian ere bai.

Zentro Dramatikoaren eta Antzerki Klasikoko Konpainia Nazionalaren ekoizpenetan parte hartu du, bereziki Iñaki Rikarte zuzendariari zuzendari-lanetan laguntzen. Bestek beste, Yllana konpainiarentzat "Hip Hop Circus" ikuskizuna zuzendu du eta Kulunka Teatro konpainiarentzat egilekide eta laguntzaile gisa zuzendaritza lanak eraman ditu. Hauetan azpimarratu dezakegu "Solitudes" lana, 2018ko Max saria ikuskizuna onenari jaso zuena.

Bere ibilbide zabalean, hogeita hamar ikuskizun baino gehiagotan parte hartu du, eszenako zuzendari gisa eta (co) antzerkigile gisa. Bere lan sarituetakoz batzuk: 2008 Max Errebelazio saria "Desde lo Invisible"; Ikuskizun Onena 2006an Valladolideko TACeko O Sailean "Malabreikers" ikuskizunarekin eta 2014an "Bada garaia maitasunaz hitz egiteko" ikuskizunagatik; CirKòlika Sari Berezia, 2024ean, Psirc konpainiaren "El Trailler de la saga Després de tot" lanagatik. Azken hau ere izendatua izan zen Talia 2024 sarietarako zirku ikuskizun onenaren sarira.

Urteak daramatza zirkuaren potentzietan eta berezitasunetan ikertzen Twisting the Balance eta Psirc konpainiekin batera, idazketa eszeniko berrien topaketan pentsatzen. 2020tik aurrera "Non-sense Cabaret de pensamiento" zuzentzen du Terrorismo de autor taldearekin batera. Hau iraupen luzeko proiektu bat da, Madrilgo Udaleko 21 distritoen, Circo Price Antzokiaren, Pistacatroren eta La Grainerieren (fabrique des arts du cirque TLS) laguntzarekin.



toni gutierrez

Akrobata eta ingurumen zientzialaria

Zirkoko artista, sortzailea eta pedagogo. Gironako unibertsitatean ingurumen-zientzietan lizentziatu zen, eta biologiako irakasle eta ingurumen-hezitzaile aritu zen 2008tik 2013ra arte. Urte horretan arte eszenikoekin harremanetan jarri zen, antzerki fisikoaren eta dantzaren eskutik. Azkenik, zirkuko profesional gisa trebatzea erabaki zuen, soka akrobatikoa diziplinan espezializatuz, Emiliano Ron (Bartzelona- Argentina) eta Helene Hembling (NICA, Australia) bezalako formatzaileekin. Trapezio bikoitzean ere espezializatzen da, Pilar Serraten (Escola de Circ Rogelio Rivel, Bartzelona) eta Yuri Sakaloven (École Supérieure des Arts du Cirque, Brusela) eskutik. 2013tik aintzin Asvin Lópezekin "La Fem Fatal" trapezio bikotea sortu eta etengabe lan egiten dute mundu osoko konpainia eta zirkuarekin haien ikuskizun eta proiektuetan. Era berean, Col·lectiu TQM konpainiaren eta "VoloV" (2020-2023) ikuskizunaren sortzaileetako bat da eta "El Décimo Hombre" dantza eta zirku ikuskizunaren sortzailea, Miquel Barcelona dantzari eta koreografoarekin batera (2021- gaur egun).

Ikerketaren maitale, soka bakarleri gisa lan egiten du, bere sorkuntza propioekin. "Tropismos" da lan hauetan berriena, eta aurreko lanak "Unexpected" eta "Stay Alive" dira. Aldi berean, beste artista eta koreografo batzuekin kolaboratzen du diziplina anitzeko proiektuetan.

Phoebe Armstrongekin (2010) batera sortutako Amnoticos (Espainia-Australia) konpainiekin lan egin du. Eta hurrengo proiektuetan ere: Loosystemokes eta Fidget Feet (Irlanda), Cirque Dreams (USA), Circ Cric (Katalunia), Cia Ciclicus eta Pals ikuskizuna (Katalunia, Brasil), Los Corderos s.c eta "Soterrani Còsmic" ikuskizuna (Circ d'Hivern- Ateneu Popular de Nou Barris), Overhead Project eta "X [iks]" ikuskizuna, (Alemania), Palazzo Dinner-Show (Austria eta Alemania), Gran Teatre del Liceu "La Torre de Nadal" eta "La Torre dels Somnis" (Bartzelona).

Eskenatokietako jarduera irakaskuntzarekin uztartzen du, Europa eta España mailan eskeinitako formakuntza profesionalekin.



juanjo altuna otamendi

Basogintzako teknikaria eta Riggerra

Zuhaitzen baldintzarik gabeko maitalea eta basoen sekretuak ezagutzen dituena. Umetan basoen kudeaketan hasi zuen bere ibilbidea, familiaren ondare gisa, aitarekin batera.

Fraisoro Eskolan (Zizurkil-Gipuzkoa) goi-mailako basogintzako eta natura-inguruneko kudeaketako teknikari ikasketak burutzen ditu eta bere formakuntza zabaltzen du jasangarritasun teknikari bezela, Cederna Garalur elkarteak eskeinitako programa europearrari esker.

Hainbat urtez basogintzako teknikari gisa lan egin zuen Nafarroako Aralar Parke Naturalean eta Cederna Garalurrek 2022. urtean sustatu zuen proiektuaren koordinatzaile gisa Malerreka bailaran.

Altuerako kimatze eta mantentze-lanetan espezializatzen da bezero pribatuentzat zein publikoentzat lanean. Honi esker, naturan, eta zehazkiago zuhaitzetan Rigger-gaitasunak garatzen ditu.

Basoetan egiten duen lana antzezle fazetarekin uztartzen du zinema eta tokiko antzerkiaren inguruko proiektuetan. Gaur egun, antzezle eta teknikari balioaniztun gisa lan egiten du Estefania de Paz Asín konpainian, "Olvido Flores" ikuskizunean, eta zehazkiago "Las Maravillas de Jupiter" proiektuaren baitan.

komuni kazoa



**pablo
pérez
terré**

Proiektuaren markaren edo brandingaren kudeaketa, pitch-a eta sormen grafikoa Pablo Pérez Terrék egin ditu. Bartzelonako Institut del Teatren Arte Dramatikoko goi-mailako formakuntza egin du eszenografiako espezialitatean, eta grafikako goi-mailako teknikaria da Huescako Arte Eskolan ikasita. Esperientzia handia du ekoizpen diseinuan eta kultur kudeaketan, baita zinema, antzerkia, telebista eta diseinu grafikoaren arloetan ere.

Balioaniztasunagatik eta egungo garaietara egokitzeagatik baloratutako profesionala da. Izan ere, hainbat diziplina ezagutzea eta aldakortasuna funtsezkoak dira gaur egungo sormen-sektorean.

Landa-eremuetan kultura eta arte proiektuak sortzen eta egiten espezializatuta dago, eta profesionalki margenetan garatzen diren alderdi desberdinak interesatzen zaizkio.

Hogei urte baino gehiagoko esperientzia du lurraldearen gaineko ekintza zuzenean, eta mota askotako proiektuak asmatu eta abian jartzen ditu, hala nola jaialdien zuzendaritza, arte-erakusketak eta herritarren laborategiak, ondarea berreskuratzeko proiektuak, erakusketen komisariotza, programazioak, mentoriak, laguntza eta aholkularitzak kultura- eta sormen-proiektuetarako (<https://estoesloquehay.com>).

Kiko Ortega Lafuente (muan_fotografia) argazkilariaren begia eta artea ere bidelagun izango ditugu abentura sortzaile honetan. Urteak daramatzagu berarekin elkarlanean, eta plazer bat da haren pertzepzio original eta sentikorreraz gozatzea.



**kiko
ortega
lafuente**



estekak

Argazkiak

Elkarrizketa “Paseando a miss cultura”

Elkarrizketa “Artezblai ”

Hasiera, ernamuina:

“H2O, La Trapecionista (Maitane Azpiroz)”

Aurreko lanen bideoak:

9 Soles Artxipielago /La Trapecionista

Artxipielago (teaser) La Trapecionista

Tropismes (teaser) Toni Gutiérrez



formakuntza interesak

Espazio publikoan sorkuntza:

Oro Har, gaur egun espazio publikoan sorkuntza aztertzen eta hausnartzen duten formakuntzak interesatzen zaizkit. Baita ere sorkuntza horietan zuzendaritza eta dramaturgiarekin zerikusia dutenak.

Dantza Bertikala, soka akrobatikoa, magia:

Teknika aldetik soka akrobatikoa eta dantza bertikala lantzen duten formakuntzak. Bestalde azken urteotan magiaren inguruan jakinmina sortu zait, sorkuntza tresna oso interesgarria iruditzen zaidalako.